

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Irabazteko xederik gabeko kirol elkarteentzako 2020rako dirulaguntzen deialdiaren eta dirulaguntzak ematearen oinarriak

Alkatearen 2020ko uztailaren 6ko 200706B Dekretuaren bidez, onarpena eman zitzaizen irabazteko xederik gabeko kirol elkarteentzako 2020rako dirulaguntzen deialdiaren eta dirulaguntzak ematearen oinarriari, zeinen testu osoa denek jakin dezaten argitaratzen baita.

Behin betiko ebazpen honek administrazio bidea agortzen du.

Errekurtsoak

Ebazpen honen aurka interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dituzte ebazpen hau argitaratzen denetik aurrera.

Hala ere, lehenago aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango diote alkateari, eta horretarako hilabete izango dute oinarriak argitaratzen direnetik aurrera.

Aurrekoetz gain egoki iritzitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da.

Oinarrien testu osoa eranstean da argitaratu dadin, eta 30 eguneko epea ematen da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek eskaerak eta aurkeztu beharreko agiri guztiak aurkez ditzaten dirulaguntzak lortzeko.

Legutio, 2020ko uztailaren 6a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO

ERANSKINA

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO KIROL ELKARTEENTZAKO 2020RAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN ETA DIRULAGUNTZAK EMATEAREN OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Behar den bezala legeztaturik dauden elkarte eta klubek udalerrriaren esparruan sustatutako edo udalerrirako interesgarriak izan daitezkeen 2020rako kirol jarduerak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontuaren mugen barruan.

Bazter utzitakoak.

Ehiza eta zikloturismoa dirulaguntza lerro honetatik bazterturik daude, kontuan hartuta kirol mota horien egitura eta berekin dakarten jardunaren ezaugarriak.

2. Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta klubak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta sozietatearen egoitza Legution badaukate eta legeak ezarritakoaren arabera eratu eta erregistratu badira.

Ez dira izango dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan ildo horretan ezarritako gorabeherak betetzen dituzten eskatzaileak.

3. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak

Kirol klub edo elkarteek egoitza duten herri edo udalerriko bizilagunentzat proposatutako kirol programetako jarduerak antolatzeak dakartzan gastuak, 20120an egiteko egutegi espezifiko batekin; hor sartzen dira federazioen fitxak, arbitrajeak, berariazko materiala (baloiak, pilotak, ekipamendua etab.) eta, ikastetxeetako kirol eskolen kasuan, kirol monitorearen gastua.

Ez dira diruz lagunduko (hots, diruz lagundutako gastuaren kalkulutik aparte egongo da) jatekoarekin, edatekoarekin eta garraioarekin (entrenamenduetara edo kirol probetara joateko garraioa) loturiko gastua, ez eta horretaz aparte Legutioko Udaleko Kultura eta Kirol Batzordeak egoki jotzen duena ere.

4. Aurrekontu kreditua

Irabazteko asmorik gabeko kirol klub eta elkarteentzako dirulaguntzetarako 341.481.010 aurrekontu aplikazioa jasotzen du Legutioko Udalaren aurrekontuak.

Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa, 2020ko ekitaldirako, 16.100 euro da.

5. Dirulaguntzen izaera

Dirulaguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da hartzen inolako betebeharririk deialdi honetara aurkeztzen diren eta oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko.

6. Dirulaguntza emateko prozedura

Norgehiagoka izango da dirulaguntza emateko prozedura. Eskaerak erkatu egingo dira, betiere bermatuko direlarik Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek ezarritako publikotasun, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun, diskriminaziorik ez, eta eraginkortasun eta efizientziaren printzipioak.

7. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Hauek izango dira dirulaguntzak emateko balioespen irizpideak:

a) Zer interes publiko edo sozial duen jarduera proiektuak edo programak; baita zer interes duten ezarritako helburuek ere.

b) Udalerriko herrietan eragina duten eta bertako kultura eta kirol jarduerak sustatzen dituzten proiektu edo jarduerak izatea.

c) Erakunde eskatzailearen egonkortasuna eta kaudimena, eta hark aurkeztutako programaren jarraitutasuna.

d) Erakunde sustatzailekoak ez diren pertsonen kideek parte hartuko luketen baldintza bertan parte hartzea proiektuaren edo programaren xede diren jardueretan.

e) Programa hau dirulaguntzaren bitartez aurrera eramatea bermatzeko aurkeztu ditzakeen baliabideak (azpiegitura, materialak eta baliabide pertsonalak) izatea.

f) Programa edo jarduerak euskararen zabalkunde laguntzea.

g) Kontuan hartuko da eskatutakoak erakunde eskatzailearen diru baliabideekin duen proportzionaltasuna.

h) Diruz lagundu beharreko zenbatekoa ehuneko 1 areagotuko da diruz lagundutako jardueren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen badute.

8. Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzak programaren kostuaren arabera eta hura partez estaltzeko dauden baliabideen arabera izango dira. Garrantzitsua eta kontuan hartu beharrekoa izango da sustatzaileak baliabide propioak sortu ahal izatea edo baliabideak beste administrazio publiko batzuen bitartez lortu ahal izatea.

Dirulaguntzen zenbateko osoa 2020rako kontsignatutako aurrekontu mugen arabera izango da.

Gehienez, sortzen den gastuaren ehuneko 75 diruz lagunduko da. Zenbateko hori diruz lagun daitezkeen gastuen arabera kalkulatzen da, oinarri hauen laugarren atalean xedatutakoarekin bat etorriz.

Kirol elkarte edo klub bakoitzari gehienez ere 5.000 euroko dirulaguntza emango zaio.

9. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

Eredu ofizialarekin (I. eranskina) bat etorriko dira eskaerak eta Legutioko Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira (Karmen kalea, 10); halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabili ahalko da eskaerak aurkezteko.

Eskaerak eta agiri osagarriak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaerak edo berarekin batera aurkeztutako nahitaezko agiriek hutsen bat badaukate edo osorik ez badaude, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hautemandako akatsak zuzentzeko; epe hori igaro eta esandako akatsak ez badituzte zuzendu, beren eskaeran atzera egiten dutela ulertuko da eta prozedura artxibatu egingo da.

Elkarte bakoitzak eskaera bat baino ezingo du aurkeztu.

10. Eskabidea osatzeko dokumentazioa

Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.
- b) Ordezkeri gisa jarduten duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, nola eta eskaera orria izenpetzen duena erakundearen lehendakaria bera ez den.
- c) Erakundearen estatutuen fotokopia eta legea betez eratuta egotearen eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundearen Erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria (baldin eta ez bada aurkeztu beste deialdi batzuetan).
- d) Elkartearen Identifikazio Fiskaleko kodearen kopia.
- e) Zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzako betebeharren ordainketa egunean edukitzearen ziurtagiria.
- f) Jardueraren proiektua edo jardueren urteko programa, han ondoko hauek adierazi behar direlarik bereizi:
 - I. Lortu nahi diren helburuak.
 - II. Garapen egutegia.
 - III. Programaren edo jardueraren kostua.
 - IV. Deialdi honetatik kanpo kudeatuko diren baliabideak.
 - V. Jarduera bakoitzeko diru sarrerak.
 - VI. Bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuota.
 - VII. Taldekideen zerrenda, sexuka banatuta.

g) Elkartearen titulartasuneko kontua, banku erakundeak behar bezala egiaztatua.

h) Legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, elkarte dirulaguntzak jasotzeko gaitasungabetua ez dagoela adierazten duena (II. eranskina).

i) Erantzukizunpeko adierazpena, beste erakunde publiko zein pribatu batzuek dirulaguntza eskaeraren xede den proiekturako emandako edo erakunde horiei eskatutako dirulaguntza edo laguntzena (III. eranskina).

j) Diru sarrera eta gastuen aurrekontu xehatua, 2020. urtean egingo den urteko programa edo kirol jarduerena (IV. eranskina).

Erakunde onuradunak beren burua behartzen dute beraiek egindako jardueren inguruan Legutioko Udalak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak aurkeztera.

11. Dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioarako, proposamenerako eta ebazpenerako eskumena daukaten organoak

Kirolen informazio batzordeak proposatuta, lehiaketa bidez emango ditu dirulaguntzak udalbatzak, alkateak edo lehendakariak dagozkion oinarriak onartu ondoren. Batzordeak, proposamen hori egiteko, egoki irizten dituen aholku teknikoak eskatu ahal izango ditu.

Informazio Batzordeak ezin du proposatu, inola ere, oinarri arautzaileetan ezarritakoa urratzen duen dirulaguntzarik emateko.

Zalantzarik egonez gero oinarri hauek interpretatzerakoan, Legutioko Udaleko Kirol Batzordeak argituko du.

12. Ebazteko epea

Deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sei hilabete izango dira gehienez ere prozedura ebatzi eta haren berri emateko.

Gehieneko epea igaro bada eta interesdunei bidezko ebazpenaren berri eman ez bazaie, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, administrazio isiltasunagatik.

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek aukerako beraztertzeko errekurtsioa jarri ahalko diote Legutioko udalbatzari hilabeteko epean, ebazpen hori ematen denetik aurrera; bestela, zuzenean aurkeztu ahalko dute administrazioarekiko auzi errekurtsioa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean. Horrek guztiak ez du eragozten interesdunak egoki deritzon beste edozein errekurtsio ere aurkeztea.

13. Dirulaguntzak ordaintzea

Elkarte edo klub bakoitzari dagozkion dirulaguntzak ezarri eta gero, ondoko banaketa honen arabera ordainduko dira:

– Aldez aurretik ordainduko da dirulaguntza; hau da, justifikazioa egin baino lehen. Diruz lagundutako kopuru osoaren ehuneko 75 programaren hasieran emango da, eta ez da zertan bermerik eman, jarduerak gizarte interesa baitaude; edonola ere, arauak ez betetzeagatik erantzukizuna izango da edo dirulaguntza itzultzeko eskatuko da, hala badagokio.

– 2020ko ekitaldian egindako jardueren memoria eta ordainketa ziurtagiriak aurkeztu ondoren gainerako ehuneko 25a ordainduko da.

14. Dirulaguntza justifikatzeko epea eta era

2021eko urtarrilaren 31n bukatuko den epean, dirulaguntzen kirol elkarte eta klub onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Diruz lagundutako gastuen justifikazio memoria, entitate onuradunaren ordezkariak sinatuta.

b) Fakturak, jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak; datu hauekin argi identifikatuta egon beharko dira:

Jaulkitzailea, beraren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Hartzailea, izenarekin edo sozietatearen izenarekin eta NAN edo IFZrekin (ahal dela, elkarte edo klubaren izenean).

Gastuaren xedea.

Data.

Faktura zenbakia.

c) Elkarte edo klubak izandako diru sarrera edo gastu guztien zerrenda.

d) Zinpeko adierazpena, entitate onuradunaren ordezkariak sinatutakoa, gastua finantzatu duten dirulaguntza edo diru sarrerei buruzkoa, zenbatekoa edo jatorria adieraziz.

e) Egindako publizitate materialaren ale bat (kartelak, eskuko programak, etab.).

f) Fakturak ordaindu izana egiaztatzeko dokumentazioa Honako hauek ordainagiri gisa onartuko dira:

Jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.

Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

Jatorrizko bankuko kontu laburpenak, posta arruntez jasoak.

Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituena.

Posta elektronikoz jasotako bankuko kontu laburpenak edo transferentzia agindu telematikokoak.

Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak.

Honako hauek ez dira gastuen justifikagarri gisa onartuko:

1. Honako hauek argi identifikatuta ez dituzten fakturak edo agiriak:

Jaulkitzailea, beraren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

Hartzailea, izenarekin edo sozietatearen izenarekin eta NAN edo IFZrekin (ahal dela, elkarte edo klubaren izenean).

Gastuaren xedea.

Data.

Faktura zenbakia.

2. Zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak, PFEZaren (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

15. Dirulaguntza itzultzea

Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira horrelako kasuren bat gertatuz gero:

a) Aurkeztutako eskaeran edo agirietan gezurrezko daturik azaldu badute.

b) Emandako dirulaguntza ez bada erabili aurkeztutako eta onartutako programan aurreikusten diren jardueretarako.

c) Hasierako aurrekontuan aurreikusitako gastuak (zegokien ehuneko ekonomikoa aztertze erabilitakoak) ez badira modu zuzenean justifikatu faktura eta ordainagiriekin, 13. oinarriak ezarritako betekizunekin bat etorri. Gastuaren partezko justifikazioa eginez gero, justifikatu ez den gastuaren baliokidea den diru kopurua itzuli beharko da.

d) Jardueraren benetako kostua kontuan hartuta gehiegizko finantzaketa lortu bada; halakoetan sobera dagoen diru kopurua itzuli beharko da.

e) Gainfinantzaketa egoten bada, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek dirulaguntzak edo laguntzak eman dituztelako; halakoetan, onuradunak Legutioko Udalak emandako zenbatekoa itzuli behar du, halako moldez non ez den gaindituko proiektuaren edo jardueraren kostuaren ehuneko 100, adibidez oinarri hauen 15. eta 16. puntuetan jasotakoa.

f) Oro har, oinarri hauetan, aplikatu beharreko araudian edo dirulaguntza ematen duen erabakian finkatutako betebeharrak edozein bete ez bada.

g) Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua jasotzen dituen gainerako itzultze arrazoietatik edozein gertatuz gero.

Itzultzeko prozedura izapidetuko da Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak horri buruz xedatutakoarekin bat etorri, hura udalbatzaren, dirulaguntzak ematen dituen organoaren edo organo eskuordearen erabakiaren bidez ebatziko da, eta betiere entzunaldiko izapidea emango da.

Zenbatekoak ez badira horretarako ezarritako epean itzultzen, kasuan kasuko berandutze interesak eskatuko dira, dirulaguntza ordaindutako unetik itzuli beharra erabaki artekoak.

Itzuli beharreko kopuruak emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20 gainditzen badu, orduan 2021eko ekitaldian emango diren dirulaguntzetan egokituko litzaiokeen dirulaguntzaren emakida osoaren ehuneko 20ko zigorra aplikatuko da.

16. Kolaborazioak

Legutioko Udalak erabakiko du, berak kirol hedapenerako antolatutako kanpainak aurrera eramateko egoki irizten dion kasuetan, urtean zehar eta dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera, elkarte edo klub onuradunek zer laguntza eman behar duten.

Erakunde onuradunak berak udalerrian egiten den kirol eta kultura jarduera bat gutxienez antolatzeko edo bertan lankidetzan emateko baldintzaren pean egongo da dirulaguntza.

17. Betebeharrak

Udalaren ontzat emanaren aurretik udalaren armarrria jarri beharko da elkarte edo klubek egingandako material guztietan (kartelak, kamisetak, etab.), gastu modura sartuta badaude dirulaguntza eskatzean aurkeztutako aurrekontuan edo osorik udalak finantzatuak badira.

18. Dirulaguntzak emateko arrazoiak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketa garrantzitsuak egon badira, ebazpena aldatu ahalko da.

19. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei buruzko arloan, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan jasotako arauak eta lege horren erregelamendua onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuaren IV. titulua.

20. Araudi aplikagarria

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen erregelamendua onartzen duena, eta Legutioko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza, 2005eko martxoaren 21eko ALHAOn argitaratua.

(I. ERANSKINA)

**KIROL JARDUERAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA
IRABAZTEKO XEDERIK GABE**

2020KO DEIALDIA

ERAKUNDE ESKATZAILEA:.....
ELKARTEEN ERREGISTROKO INSKRIPZIO ZENBAKIA:.....
IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA:.....
BATZORDEBURUA:.....
NANA:.....
HELBIDEA:.....
TELEFONOA:.....
HERRIA:.....
POSTA ELEKTRONIKOA:.....
Legutio, 2020koaren(a).

Legezko ordezkariaren sinadura:

Erantsi beharko zaizkion agiriak:

- I, II, III eta IV eranskinak beteta.
- Bederatzigarren oinarrian zehaztutako agiriak.

Interesduna jakitun da inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Legutioko Udalak tratatuko dituela. Udal-kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaie, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutako kasuetan. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, Legutioko Udalera joz (Carmen kalea 10, 01170-Legutio) edo info@legutio.eus helbidera.

(II. ERANSKINA)

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ELKARTEA DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO
BATERAEZINTASUN EGOERAN EZ DAGOELA ADIERAZTEN DUENA**

.....jaunak/andreak (NANA:.....),.....-n izenean
eta ordezkartzan (IFK:.....eta jakinarazpenetarako helbidea:.....)
.....bezala jardunez, honako hau

ADIERAZTEN DUT

Ez ni ezta ordezkatzan dudan erakundea ere gaude dirulaguntzen onuradunak izateko
Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 eta y 13.3 artikuluetan ezarritako
bateraezintasun zein debeku egoeran.

Eta, jasota geratu dadin eta ondorio egokiak izan ditzan, honako agiri hau egin dut,

Legutio,.....(e) ko.....aren.....(a).

lzenpetua:

(III. ERANSKINA)

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, BESTE ERAKUNDE PUBLIKO ZEIN PRIVATU
BATZUEK DIRULAGUNTZA ESKAERAREN XEDE DEN PROIEKTURAKO EMANDAKO
EDO ERAKUNDE HORIEI ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA EDO LAGUNTZENA**

.....jaunak/andreak (NANA:.....),.....-n izenean
eta ordezkartzan (IFK:.....eta jakinarazpenetarako helbidea:.....)
.....bezala jardunez, honako hau

ADIERAZTEN DUT

Beste erakunde publiko zein pribatu batzuek dirulaguntza eskaeraren xede den proiekturako emandako edo erakunde horiei eskatutako dirulaguntza edo laguntzak hauexek dira 2020an:

ERAKUNDEA	SAILA	ZENBATEKOA
-----------	-------	------------

Eta, jasota geratu dadin eta ondorio egokiak izan ditzan, honako agiri hau egin dut,
Legutio,.....(e) ko.....aren.....(a).

Izenpetua:

(IV. ERANSKINA)**DIRU SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTU ZEHAZTUA**

URTEA:.....

ERAKUNDE ESKATZAILEA:.....

DIRU SARRERAK	ZENBATEKOA
Kuotak	
Sarrerak	
Publizitatea	
Zozketak	
Dirulaguntzak:	
Lankidetzak hitzarmenak	
Eusko Jaurlaritza	
Arabako Foru Aldundia	
Udalak	
Kirol federazioak	
Beste erakunde publiko zein pribatu batzuk	
GUZTIRA	
GASTUAK	
Federazio lizentziak	
Arbitrajeak	
Txandalak, elastikoak... erostea	
Entrenamenduetarako materiala erostea (baloiak...)	
Garaikurrak	
Publizitatea	
Aseguruak	
Beste batzuk	
GUZTIRA	
ESKATUTAKO ZENBATEKOA	

Legutio,.....(e) ko.....aren.....(a).

Izenpetua (legezko ordezkaria):

(V. ERANSKINA)**BANKU KONTUAREN FITXA**
ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK

Erakundearen izena:			
IFK:			
Helbidea:			
Udalerria:		Posta kodea:	
Legezko ordezkaria:			

Legutio,.....(e) ko.....aren.....(a).

(Erakundearen zigilua eta legezko ordezkariaren sinadura):

BANKETXEKO DATUAK

(Banketxeak bete beharrekoak)

Erakundearen izena:													
Banketxearen bulegoaren helbidea eta herria:													
BIC:													
IBAN:													
BKK:													

Ziurtatzen dugu kontu hori existitzen dela eta haren titularra goiko hori dela.

Legutio,.....(e) ko.....aren.....(a).

(Erakundearen zigilua eta finantza erakundearen arduradunaren sinadura):